ditzakete kualifikatuta ez dauden langileen lanpostuak, eta, beraz, gidatu egin behar ditugu, eta lanerako beste aukera batzuk eman. Prozesuak ez ditu lanpostuak suntsituko, birmoldatuko baizik. Horrenbestez, Lanbide Heziketak berebiziko garrantzia izan behar du langile horiek birbideratzeko, eta hezkuntza sistemaren ezinbesteko eremu bilakatu behar da, gainera.

Administrazio publikoek probetxu atera behar diete datozkigun aukera teknologiko horiei, herritarrei eskaintzen dizkieten zerbitzuak orain baino eraginkorragoak, osoagoak eta arinagoak izan daitezzen. Esate baterako, zenbait aldagai monitorizatzen dira denbora errealean SmartKalea proiektuaren bitartez, herritarren eta saltokien premietara bizkorrago egokitzeko. Horrelako proiektuak behar-beharrezkoak dira eraldaketa digital handiari heltzeko, eta zerbitzu publiko gehiago eta hobek emateko.

Alabaina, nahiz eta, gaur egun, kudeaketa asko online egin daitezkeen administrazio askotan, hainbat herritarrek ez dituzte horiek erabiltzeko baliabideak edo ezagutzak, eta arrakala digitalaren arazora garamatza horrek. Hori da, hain zuzen ere, jada abian dugun aro digital berrian inor atzean ez gelditzearren gainditu behar dugun oztopo handia.

Horiek horrela, behean agertzen den bozeramaileak EBAZPEN PROPOSAMEN hau izenpetzen du, bilkuran eztabaidatu dadin:

1. Donostiako Udalak hitzematzen du administrazio eskudunekin eta eragile sozial eta ekonomikoekin lan egingo duela arrakala digitala eta soziala murrizteko, COVID-19aren pandemiak hura agerian utzi baitu. Gainera, gehien dutenen eta gutxien dutenen

cualificados, y para ellos tenemos que guiarles y darles alternativas laborales. Puesto que este proceso no va a destruir puestos de trabajo sino que los va a reconvertir, es crucial el papel que debe tener la Formación Profesional para reorientar a estos trabajadores/as y como parte imprescindible del sistema educativo.

Estas nuevas oportunidades tecnológicas que se avistan también deben ser aprovechadas por las administraciones públicas para que puedan ofrecer unos servicios más eficientes, integrados y ágiles a la ciudadanía. Proyectos como SMART Kalea que monitorizan en tiempo real diferentes variables para poder adaptar más rápidamente las necesidades que tienen vecinos/as, comercios, son más que necesarios para esta gran transformación digital y para prestar más y mejores servicios públicos.

Sin embargo, actualmente en las Administraciones ya se pueden realizar muchas gestiones online, pero una parte de la ciudadanía no dispone de los recursos o los conocimientos necesarios para utilizarlos, lo que incide en el problema de la brecha digital, que es el gran obstáculo que debemos superar para que nadie se quede atrás en la nueva era digital que ya hemos iniciado.

Por todo ello, la portavoz abajo firmante suscribe la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN para ser debatida en el Pleno:

1. El Ayuntamiento de San Sebastián se compromete a trabajar junto con las administraciones competentes y los diferentes agentes sociales y económicos para reducir la brecha digital y social, cuya existencia ha evidenciado la pandemia de la COVID-19, y que

arteko desberdintasun sozialak sakondu egiten dira horren eraginez, baliabide teknologikoak erabiltzeko premia dagoenean.

2. Herritarrek behar duten gaitze digital eta teknologikoa bideratzeko lan egin dezan eskatzen dio Donostiako Udalak Eusko Jaurlaritzari. Besteak beste, tokiko merkataritza eta industria ehuna digitalizatu eta dinamiza dadin lagunduz; Lanbide Heziketako programa berriak garatuz, gizartea digitalizatu eta robotizatzearekin batera beharko diren langileen profilak prestatzeko; eta egungo langileei prestakuntza emanez, enpleguari euts diezaioten agertoki berri honetan.

3. Donostiako Udalak hiriko udal zerbitzu guztien modernizazio teknologikoaren alde egiten du, baita SmartKalearen gisako proiektuak zabaltzearen alde ere, tokiko merkataritza suspertzeko eta hiriko energia eraginkortasunerako.

Donostia, 2020ko urriaren 27a

Marisol Garmendia Beloqui
PSE-EE udal taldearen bozeramailea”.

acentúa las desigualdades sociales entre quienes más y menos tienen a la hora de usar las herramientas tecnológicas.

2. El Ayuntamiento de San Sebastián solicita al Gobierno Vasco que trabaje por la capacitación digital y tecnológica que necesita la ciudadanía, colaborando en la digitalización y dinamización del tejido comercial e industrial local, desarrollando nuevos programas educativos en la FP para preparar los perfiles de personas trabajadoras que serán necesarios con la digitalización y robotización de la sociedad, y formando a los actuales trabajadores y trabajadoras para que conserven el empleo en este nuevo escenario.

3. El Ayuntamiento de San Sebastián apuesta decididamente por la modernización tecnológica de todos los servicios municipales de la ciudad y por la ampliación de proyectos como SMART Kalea, para reactivar el comercio local o mejorar la eficiencia energética urbana.

San Sebastián, 27 de octubre de 2020

Marisol Garmendia Beloqui
Portavoz grupo municipal PSE-EE”.

5. PROPOSAMENAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA PROPUESTA N.º 5:

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADO.
UNANIMIDAD.

6. Ebazpen proposamena, PSE-EE Taldeak aurkeztua, klima aldaketari aurre egiten dion hiri iraunkor eta osasungarria izatea defendatzeko.

6. Propuesta de resolución presentada por el Grupo PSE-EE en defensa de una ciudad sostenible y saludable en lucha contra el cambio climático.

“ALKATE JAUNARI

Marisol Garmendia Beloqui andreak, Donostiako Sozialistak PSE-EE Taldearen bozeramaileak, Udaltzaren Organo Araudiko indarreko 55. artikulua babesean, ohore handiz aurkeztu du jarraian azalduko den EBAZPEN PROPOSAMENA, klima aldaketari aurre egiten dion hiri iraunkor eta osasungarria izatea defendatzeko, bilkuran jorratu dadin POLITIKA OROKORRARI BURUZKO URTEKO ADIERAZPENA dela eta.

JUSTIFIKAZIOA:

Donostiako sozialisten lehentasunezko helburua hiriko garapen iraunkorra eta ekonomia zirkularra bultzatzea da, baita klima aldaketari aurre egiteko politika bateratuak sustatzea ere.

COVID-19ak eragin duen pandemiaren aurrean, argi geratu da iraunkortasuna neurri handiagoan bermatzen duen eredu baterantz jo behar dugula, eta eredu horrek ingurumena errespetatu behar duela eta pertsonen osasuna zaindu. Hala jokatu behar dugu ingurumen egoerak behartuta, baina, baita ere, ekonomia suspertzeko eta donostiarren ongizatea ziurtatzeko.

Gaur egun, Donostiako ingurumen estrategiak hiriko Klima 2050 Ekintza Planean finkatutako ibilbide orriari jarraitzen dio. Plana 2018ko ekainean aurkeztu zen, eta, hartan, ingurumen estrategia eta politika proaktiboak jasotzen dira, klima aldaketaren ondorioak prebenitu eta arintzeko. Izan ere, itsasoa lagun dugun hiri honetan, ondorioak larriak izan daitezke.

Nahiz eta egin den guztia oso garrantzitsua den, ez da aski, bistan denez. Hori dela eta,

“AL EXCMO. SR. ALCALDE

D^a. Marisol Garmendia Beloqui, Portavoz del Grupo Socialistas Donostiaras PSE-EE, al amparo del vigente artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, tiene el honor de presentar, para su tratamiento en el Pleno sobre LA DECLARACIÓN ANUAL DE POLÍTICA GENERAL la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN, en defensa de una ciudad sostenible y saludable en lucha contra el cambio climático.

JUSTIFICACIÓN:

Impulsar el desarrollo sostenible y la economía circular de la ciudad de San Sebastián y las políticas concertadas de lucha contra el cambio climático, son un objetivo prioritario para los socialistas donostiaras.

La pandemia provocada por la COVID-19 ha puesto de manifiesto que debemos evolucionar hacia un modelo más sostenible, respetuoso con el medio ambiente y que vele por la buena salud de las personas. Por imperativo ambiental, pero también con el fin de lograr los objetivos de la recuperación económica y del bienestar de la ciudadanía donostiarra.

Actualmente, San Sebastián rige su estrategia ambiental por la hoja de ruta que marca el Plan de Acción Klima 2050 de Donostia / San Sebastián, que se presentó en junio de 2018 y que cuenta con estrategias y políticas medioambientales proactivas para prevenir y paliar los efectos del cambio climático que en una ciudad como la nuestra, bañada por el mar, pueden traer consecuencias graves.

Siendo muy importante todo lo realizado, es evidente que no es suficiente. Por ello, en marzo

Udalak Larrialdi Klimatikoaren Deklarazioa onartu zuen 2020ko martxoan.

Elkarlan aktiboa baliatuz, botere publikoek eta herritarrek neurriak hartu behar dituzte, klima aldaketaren aurrerabidea benebenetan gelditzeko. Hiriak eutsi egin behar dio ingurumenarekin duen konpromisoari, eta CO₂-aren igorpenak ahalik eta gehien murriztu behar ditu.

Cristina Enea Fundazioak iraunkortasunari buruz egindako urteko txostena ikusirik, duela gutxi egiaztatu dugu Donostiak emaitza onak lortu dituela zenbait esparrutan: energia, ingurumen kalitatea, hondakinak birziklatzea, eta mugikortasun iraunkorra. Nolanahi ere, zenbait alderdi hobetu egin behar dira.

Horiek horrela, behean agertzen den bozeramaileak EBAZPEN PROPOSAMEN hau izenpetzen du, bilkuran eztabaidatu dadin:

1. Donostiako Udalak hitzematen du iraunkortasuna bermatzeko udal politikak lantzen jarraituko duela, Donostiako Klima 2050 Planaren barnean, hirian igortzen diren berotegi efektuko gasak murrizteko. Hartara, mugikortasuna iraunkorra eta osasungarria izateko neurriak bultzatuko ditu, eta bideak oinezkoentzat bihurtzea, bizikletak erabiltzea, eta auzoetan bidegorriak zabaltzea indartuko du; era berean, igorpen txikiak dauden eremuak hirian zehar hedatzeko jardungo du, eta mugikortasun elektriko publiko eta pribatuaren alde egingo du, bereziki Dbusen flota elektrifikatuz eta lurpeko tarteari erreparaturik, hori baita edukiera handiko garraiobiderik iraunkorrena; gainera, energia eraginkortasuneko planak abiaraziko ditu hiriko etxebizitzetan, eta energia berriztagarriak erabiltzea bultzatuko du.

de este 2020 se aprobó desde el Ayuntamiento la declaración de Emergencia Climática en la ciudad.

Debemos adoptar, desde los poderes públicos y la ciudadanía, en colaboración activa, medidas que sirvan de freno real y tangible al avance del cambio climático, con una ciudad que mantenga su compromiso con el Medio Ambiente y reduzca todo lo posible los niveles de emisiones de CO₂.

Recientemente, en el Informe Anual de Sostenibilidad elaborado desde la Fundación Cristina Enea, pudimos comprobar que San Sebastián ha obtenido buenos resultados en energía, calidad ambiental, reciclaje de residuos y movilidad sostenible, pero hay aun algunos aspectos que son necesarios mejorar.

Por todo ello, la portavoz abajo firmante suscribe la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN para ser debatida en el Pleno:

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián se compromete a seguir trabajando en políticas municipales sostenibles, dentro del Plan SS Klima 2050, con el objetivo prioritario de reducir la emisión de gases de efecto invernadero que se emiten en la ciudad, impulsando medidas a favor de una movilidad sostenible y saludable, reforzando las peatonalizaciones, el uso de la bicicleta y la ampliación de bidegorris en los barrios, extendiendo las zonas de bajas emisiones en la ciudad, apostando por la movilidad eléctrica pública y privada, especialmente la electrificación de la flota de Dbus y la pasante soterrada de San Sebastián, como el medio de transporte de gran capacidad más sostenible, la puesta en marcha de planes de eficiencia energética en el parque de viviendas de la ciudad y el impulso a la utilización de energías renovables.

2. Donostiako Udalak birziklapenaren, teknologia eta gizarte berrikuntzaren, eta ekonomia berdearen sektoreko enprekin batera egiten den lana sendotzeko jardungo du, kalitate oneko lanpostuak, ezagutzak, eta merkatuko posizionamendua sortzen ari baitira, ekonomia zirkularra eta trantsizio ekologikoa oinarri dituen garapen eredua sustatze aldera.

3. Donostiako Udalbatzak lehentasunezkoztat jotzen du baliabide naturalei eustea eta horiek babestea, klima aldaketak hiriko itsasertzean izan dezakeen inpaktua dela bide. Hala, klima aldaketara egokitzeko ekintzak eta Donostiako itsasertza erresilientea izateko lagungarri diren esku-hartzeak sendotu egingo ditu.

Donostia, 2020ko urriaren 27a

Marisol Garmendia Beloqui
PSE-EE udal taldearen bozeramailea”.

2. El Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián apuesta por reforzar el trabajo conjunto con las empresas donostiaras del sector del reciclaje, la innovación tecnológica y social y la economía verde, que está generando ya puestos de trabajo de calidad, conocimiento y posicionamiento en el mercado, para fomentar un modelo de desarrollo basado en la economía circular y la transición ecológica.

3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián declara como prioritario el mantenimiento y salvaguarda de los recursos naturales en relación al impacto del Cambio Climático en la línea de costa de la ciudad, reforzando las actuaciones de adaptación al Cambio Climático y las intervenciones que favorezcan la resiliencia del litoral donostiarra.

San Sebastián, 27 de octubre de 2020

Marisol Garmendia Beloqui
Portavoz grupo municipal PSE-EE”.

HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:

6. PROPOSAMENAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA PROPUESTA N.º 6:

BOZKETAREN EMAITZA:

ONARTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 19 – (9) EAJ/PNV, (4) PSE-EE, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 0.

ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

APROBADO.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 19 – (9) EAJ/PNV, (4) PSE-EE, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 0.

ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.

6. PROPOSAMENAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA PROPUESTA N.º 6:

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADO.
UNANIMIDAD.

6. PROPOSAMENAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA PROPUESTA N.º 6:

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 19 – (9) EAJ/PNV, (4)
PSE-EE, (3) PP, (3) ELKARREKIN
DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 0
ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADO.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 19 – (9) EAJ/PNV, (4)
PSE-EE, (3) PP, (3) ELKARREKIN
DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 0
ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.

7. Donostiako hiri-ekonomia berbideratu eta eraldatzeari buruzko EH BILDU Taldeak aurkeztutako ebazpen proposamena.

“DONOSTIAKO UDALBATZARI

EH Bildu udal taldeko bozeramaileak, Reyes Carrere Zabala andereak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 55. artikulua babesean, eta Udalbatzak aztertu behar duen Politika Orokorrari buruzko Urteko Adierazpenari begira, aurkezten du honako Ebazpen Proposamen hau, Donostiako hiri-ekonomia berbideratu eta eraldatzeari buruzkoa.

JUSTIFIKAZIOA

7. Propuesta de resolución presentada por el Grupo EH BILDU sobre la reorientación y transformación de la economía urbana de San Sebastián.

“AL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN

Reyes Carrere Zabala, portavoz del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, y de cara a la Declaración Anual de Política General que ha de ser examinada por la Corporación, presenta la siguiente Propuesta de Resolución, relativa a reorientación y transformación de la economía urbana de San Sebastián.

JUSTIFICACIÓN

Datozen hilabeteak erabakigarriak izango dira. Covid-19 birusaren pandemiak historian sekula ezagutu gabeko astindua eragin du mundu mailan. Baina sistema kapitalista eta bere garapen eredu neoliberalak krisian zegoen aurretik ere. Koronabirusa eta bere hedapena detonagailua izan da, baina ez krisiaren zergatia. Covid-19 birusak eragindako etenak askoz lehenagotik bizi genituen krisiak bizkortu eta azaleratu egin ditu: krisi ekologikoa, zaintza krisia, krisi sozioekonomikoa... Eta orain, krisi horiei erantzuteko pausoak alde batera edo bestera emango ditugun da galdera.

Iragana berreraikitzeak ez du etorkizunik. Izan ere, iragana berreraikitzea akats berberak berriro egitea eta ondorio berak pairatzea da. Baina areago, iragana berreraikitzeak ez du zentzurik, etorkizuna ez baita iragana bezalakoa izango.

Munduko ekonomia atzeraldian sartu da eta arrazoi ugari dago pentsatzeko aurrerantzean gero eta ohikoagoak izango direla oraingoa bezalako geldialdiak. Covid-19ak eragindako osasun krisiak bizkortu eta sakondu egin ditu krisi soziala eta krisi ekonomikoa. Zaintzaren egiturazko krisia agerian geratu da. Eta Klima Larrialdiak hamarraldi bateko tarteak uzten du erreakzionatzeko. Krisi ekologikoarekin soilik, ekonomiaren uzkurtzea iraunkorra eta are sakonagoa izango dela aurreikusten ari da.

Gaurko garapen-ereduak ezin dio ganoraz aurre egin berak sorturiko krisi askotarikoari. Bizirauteko etengabe hazi behar duen sistema ekonomikoa ez da bateragarria mugatutako planetarekin. Izan ere, lurra berriztatu dezakeena baino baliabide gehiago kontsumitzen ari gara. Eta hazkundearen mugak dagoeneko zeharkatu ditugu.

Los próximos meses serán decisivos. La pandemia del virus COVID-19 ha provocado una convulsión a nivel mundial nunca conocida a lo largo de la historia. Pero el sistema capitalista y su modelo de desarrollo neoliberal ya estaba en crisis anteriormente. El coronavirus y su expansión han sido el detonador, pero no el porqué de la crisis. El parón provocado por el virus COVID-19 ha acelerado y puesto de manifiesto las crisis que veníamos viviendo mucho antes: crisis ecológica, crisis de los cuidados, crisis socioeconómica... Y ahora la pregunta es que si vamos a encaminarnos a uno u otro lado para responder a esas crisis.

La reconstrucción del pasado no tiene futuro. Y es que reconstruir el pasado es repetir los mismos errores y sufrir las mismas consecuencias. Pero, aún más, reconstruir el pasado no tiene sentido, porque el futuro no será como el pasado.

La economía mundial ha entrado en recesión y hay muchas razones para pensar que a partir de ahora serán cada vez más frecuentes parones como el actual. La crisis sanitaria provocada por la COVID-19 ha acelerado y profundizado la crisis social y económica. La crisis estructural de los cuidados ha quedado patente. Y la Emergencia Climática nos deja una década para reaccionar. Sólo con la crisis ecológica, se prevé una contracción económica duradera e incluso más profunda.

El modelo de desarrollo actual no puede hacer frente con seriedad a la diversidad de crisis que ha generado. Un sistema económico que necesita crecer continuamente para sobrevivir es incompatible con un planeta limitado. Y es que estamos consumiendo más recursos de los que la tierra puede renovar. Y ya hemos cruzado los límites del crecimiento.

“Normaltasun berria” deitu diote birusaren osteko agertokiari. Baina munduak ezingo du izan orain arte izan dena, amaitu zen “normaltasun” hau. Planeta finituan, ezin ekonomia eta hazkunde infinitua planteatu, gauza konplikatuagorik ulertu dugu.

Alde anitzeko begiradarekin kudeatu beharreko garaiak dira. Baina, batez ere, ezinbestekoa da epe motz eta ertaineko ikuspegiak bateratzea. Hau da, gaurko krisiaren ondorio sozioekonomikoak arintzeko premiazko neurriak hartu behar dira. Baina aldi berean, eraldaketa-bektore bat aktibatu behar da, sistemaren akats larriak zuzenduko dituena eta gaurtik hasita garapen eta gizarte-ongizateko eredu berri baten oinarriak eraikitzen hasiko dena.

Eta krisiaren ondorioak bereziki nabarmenak dira Donostiako ekonomian. Azken urteotan zerbitzu sektorearen alde egindako apustuak ondorio larriak ekarri ditu. Turismoaren zerbitzura dauden aktibitate ekonomiko berriek hiriko egitura produktiboa eraldatu dute, eta lehen eta bigarren sektoreak ahulduta edo desagertzeaz daude. Ondorioz, Donostiako langabezia-tasa inguruko udalerrietan baino gehiago igotzen ari da.

Turismoak pisua hartu du azken urteotan EAEko BPGan, eta dagoeneko % 6tik gora ordezkatzeko du; Gipuzkoan % 7tik gorakoa, eta % 11tik gorakoa Donostian.

Exceltur erakundearen UrbanTUR 2016 azterketak Donostia laugarren kokatu zuen Espainiako hiri helmuga turistikoaren sailkapen orokorrean, soilik Bartzelona, Madril eta Valentziaren atzetik. Zentzu honetan, nabarmentzekoa da balorazio onena besteak

Han denominado “nueva normalidad” al escenario posterior al virus. Pero el mundo no puede ser lo que ha sido hasta ahora, se acabó esta “normalidad”. En un planeta finito, no podemos plantear una economía y un crecimiento infinito, hemos entendido cosas más complicadas.

Son tiempos en los que hay que gestionar con una mirada multilateral. Pero, sobre todo, resulta ineludible unificar los enfoques a corto y medio plazo. Es decir, tomar medidas urgentes para paliar las consecuencias socioeconómicas de la crisis actual. Pero, al mismo tiempo, hay que activar un vector de transformación que corrija los graves errores del sistema y que desde hoy mismo comience a construir las bases de un nuevo modelo de desarrollo y bienestar social.

Y las consecuencias de la crisis son especialmente significativas en la economía donostiarra. La apuesta realizada en los últimos años por el sector servicios ha tenido graves consecuencias. Las nuevas actividades económicas al servicio del turismo han transformado la estructura productiva de la ciudad y los sectores primario y secundario están debilitados o en vías de desaparición. En consecuencia, la tasa de paro de San Sebastián está creciendo más que en los municipios cercanos.

El turismo ha cobrado peso en los últimos años en el PIB de la CAV, y representa ya más del 6 %, en Gipuzkoa más del 7 % y en San Sebastián más del 11 %.

El estudio UrbanTUR 2016 de Exceltur situó a San Sebastián en cuarto lugar de la clasificación general de destinos turísticos urbanos en España, sólo por detrás de Barcelona, Madrid y Valencia. En este sentido, cabe destacar que la mejor valoración la reciben, entre otros, los

beste nazioarteko eskarian hobeto posizionatuta dauden helmugek jaso ohi dutela. Ez da kasualitatea, nazioartekotzea izan baita Donostiako sektore turistikoaren erronka nagusietako bat, eta azken urteotan turismoak gurean izan duen hazkundera, batez ere, nazioarteko merkatuaren dinamismoaren ondoriozkoa da.

Adibidez, Hiri-Ekonomiaren Barometroaren arabera, 2018an Donostiak 692.642 bidaiari hartu zituen, 2017an baino % 8,1 gehiago. Bilakaera horretan, espainiar estatutik kanpo heldutako bidaiarien hazkundera % 11,1 izan zen eta estatutik heldutakoena % 4,7. Denbora tarte berean, hiriko hoteletan atzerritarren ostatu-gauak % 11,6 hazi ziren eta estatukoak % 6,2.

Baina turismoa bete-betean jo du Covid-19 birusaren krisiak. Nazioarteko turismoa goitik behera eroriko da aurten, eta neurri handi batean atzerriko bisitarien menpe dauden eskualdeak izan dira kaltetuenak. Donostia bezala.

Hiriko ekonomia berrantolatzea tokatzen da orain. Baina krisi berri honetara ekarri gaituen sistemak paradigma aldaketa eskatzen du. Pertsonak erdigunean jarriko dituen sistema berri bat eraiki beharrean gaude. Hau da, ordena sozioekonomikoaren erdigunean etekin monetarioa ez, giza premien asebetetzea eta bizitzaren mantentzea jarri behar dira.

Krisiari erantzuteko ahalegin hau baliatu behar da jarduera ekonomikoak birkokatu eta Donostiak merkatu globalen gorabeheren aurrean duen zaurgarritasuna gutxitzeko.

Donostiako ekonomia birtokiratu behar dugu,

destinos mejor posicionados en la demanda internacional. No es casualidad, ya que la internacionalización ha sido uno de los principales retos del sector turístico donostiarra, y el crecimiento que ha experimentado el turismo en los últimos años es debido sobre todo al dinamismo del mercado internacional.

Por ejemplo, según el último Barómetro de Economía Urbana, en 2018 San Sebastián acogió a 692.642 viajeros, un 8,1 % más que en 2017. En esta evolución, el crecimiento de pasajeros llegados de fuera del Estado español fue del 11,1 %, mientras que el de pasajeros de origen estatal fue del 4,7 %. En el mismo periodo de tiempo, las pernoctaciones de viajeros internacionales en los hoteles de San Sebastián aumentaron un 11,6 %, y las de viajeros del Estado, un 6,2 %.

Pero el turismo ha sido golpeado de lleno por la crisis del virus COVID-19. El turismo internacional se desmoronará este año, y las regiones más afectadas han sido las que dependen en cierta medida de los visitantes extranjeros. Como San Sebastián.

Ahora toca reorganizar la economía de la ciudad. Pero el sistema que nos ha traído a esta nueva crisis requiere un cambio de paradigma. Tenemos que construir un nuevo sistema que ponga a las personas en el centro. Es decir, en el centro del orden socioeconómico no hay que poner el beneficio monetario, sino la satisfacción de las necesidades humanas y el mantenimiento de la vida.

Este esfuerzo de respuesta a la crisis debe aprovecharse para reubicar las actividades económicas y reducir la vulnerabilidad de San Sebastián ante los avatares de los mercados globales.

Tenemos que reubicar la economía de San

lurraldearen eta herritarren beharrekin lotu, eta horretarako beharrezkoa da orekak berreskuratzea. Hau da, ekonomia dibertsifikatu behar da, modu orekatuan, eta betiere eredu iraunkor baten baitan.

Besteak beste, donostiarren asebetetzea eta ongizatea ziurtatzeko ezinbestekoa den industria-ekoizpena identifikatu eta garatu behar da (Donostiako industriaren balio-kateen azterketa orokorra, eta ibilbide laburragoak eta seguruagoak lehenetsi). Aldi berean, Donostiako industriak balizko krisien aurrean (osasun krisiak, ekologikoak...) dituen gaitasunak aztertu behar dira. Hau da, Donostiako enpresek larrialdi-egoeran birmoldatzeko dituzten aukerak aztertu behar dira, horiei erantzuteko beharrezkoak diren ekipamenduak ekoizteko.

Teknologia zentroen ezagutza eta esperientzia interes orokorraren mesedetan jartzeko bitartekoak indartu behar dira. I+G+B eta industriaren, nekazaritzaren, merkataritzaren eta sektore publikoaren arteko elkarlan aktiboa bultzatu behar da. Baita Smart teknologiaren bidez sortu daitezkeen aukera ekonomikoen kudeaketa publikoa sustatu ere.

Trantsizio ekologikoarekin (energia, ingurumena, ekonomia zirkularra, klima aldaketaren kontrako borroka...) lotutako sektoreak garatu eta indartu behar dira.

Ekonomia Sozial Eraldatzailea berriaz sustatu beharra dago. Ekintzaitza kooperatiboa, enpresen kooperatibizazioa eta enpresa transmisioak laguntzeko zerbitzua sortu behar da Donostiako Sustapena udal sozietatean. Eta diru-laguntza lerroetan sistema kooperatiboan nahiz ekonomia sozialean oinarritutako

Sebastián, conectarla con las necesidades del territorio y de la ciudadanía, y para ello es necesario recuperar los equilibrios. Es decir, hay que diversificar la economía de manera equilibrada y siempre dentro de un modelo sostenible.

Entre ellas, la identificación y desarrollo de la producción industrial imprescindible para asegurar la satisfacción y el bienestar de los donostiarros y de las donostiarros (análisis global de las cadenas de valor de la industria donostiarra, priorizando los recorridos más cortos y seguros). Al mismo tiempo, se deben analizar las capacidades que tiene la industria donostiarra ante posibles crisis (sanitarias, ecológicas ...). Es decir, analizar las posibilidades de reconversión de las empresas donostiarros en situaciones de emergencia, para producir los equipamientos necesarios para dar respuesta a las mismas.

Se deben reforzar los medios para poner el conocimiento y la experiencia de los centros tecnológicos en beneficio del interés general. Impulsar la colaboración activa entre I+D+i e industria, agricultura, comercio y sector público. Así como promover la gestión pública de las oportunidades económicas que se pueden generar a través de la tecnología Smart.

Es preciso desarrollar y fortalecer los sectores relacionados con la transición ecológica (energía, medio ambiente, economía circular, lucha contra el cambio climático, etc.).

Es preciso promover específicamente la Economía Social Transformadora. Crear un servicio de apoyo al emprendimiento cooperativo, la cooperativización empresarial y la transmisión empresarial en la sociedad municipal Fomento de San Sebastián. Y en las líneas de subvención se deben primar las empresas basadas tanto en el sistema

enpresak lehenetsi behar dira.

Pertsonen zaintza zerbitzuen sektore ekonomikoa indartzea garapen iraunkor baterako oinarria da. Horretarako, profesionalizazioa indartzeko, lan baldintzak nahiz prestakuntza hobetzeko, eta eremuko ikerkuntza sustatzeko diru-laguntzak behar dira.

Gaurko krisiak erakutsi du zenbaterainoko dependentzia garatu duen gure ekonomiak erabat lurrunkorra den industria turistikoarekiko. Zentzu honetan, beharrezkoa da ekonomia turismoan gutxiago ardazteko aukera emango duten sektore anitzetako enpresa berriak sustatzea, alternatiba gisa.

Kontsumo lokala sustatzeaz gain, tokiko merkataritza edo merkataritza txikizkaria euskarri garrantzitsua da ekoizpen eta banaketa lokala indartzeko. Zentzu honetan, merkataritzari zuzendutako laguntza eta neurriak lekutzea ezinbestekoa da, auzo-eskalak eskaintzen dituen aukerak eta erraztasunak baliatze aldera. Egoera eta behar berrietara egokitzeko laguntzak (zerbitzuen digitalizazioa, online plataformak...); lanpostuak sortzeko zerbitzu berriak (etxez etxeko zerbitzua eskaintzeko kudeaketa publikoko banaketa plataformak); kontsumo ohiturak lekutzen laguntzeko bitartekoak (merkataritza bonoak, tokiko txanpona...); lehia desleialaren aurkako defentsa (jaiegunetan saltoki handiak irekitzeko debekua, merkataritza-gune handien proiektuak geldiarazi eta baimen berririk ez eman...).

Lehen sektorean ere lan postuak sortu eta lan-baldintza duinak bermatu behar dira: nekazaritza sektorea hirian finkatzen lagundu; baserrietan ordezkapen zerbitzua

cooperativo como en la economía social.

Fortalecer el sector económico de los servicios de cuidados a las personas es la base para un desarrollo sostenible. Para ello se necesitan subvenciones que refuercen la profesionalización, mejoren las condiciones laborales y la formación, y fomenten la investigación en el ámbito.

La crisis actual ha demostrado la dependencia que ha desarrollado nuestra economía respecto a una industria turística totalmente volátil. En este sentido, es necesario impulsar como alternativa nuevas empresas multisectoriales que permitan focalizar menos la economía en el turismo.

Además de fomentar el consumo local, el comercio local o minorista constituye un importante soporte para potenciar la producción y distribución local. En este sentido, fijar ayudas y medidas dirigidas al comercio es imprescindible para aprovechar las oportunidades y facilidades que ofrece la escala de barrio. Ayudas para la adaptación a nuevas situaciones y necesidades (digitalización de servicios, plataformas online...); nuevos servicios de creación de empleo (plataformas de distribución gestionadas públicamente para la prestación del servicio a domicilio); medios de apoyo para fidelizar hábitos de consumo (bonos comerciales, moneda local...); defensa contra la competencia desleal (prohibición de apertura de grandes superficies en festivos, paralización de proyectos de grandes superficies comerciales y no concesión de nuevas licencias...).

También en el sector primario hay que crear puestos de trabajo y garantizar unas condiciones de trabajo dignas: ayudar a consolidar el sector agrario en la ciudad; ofrecer

indartzeko laguntzak eta bitartekoak eskaini; arrantza sektorearen jarduna berreskuratzeko neurriak hartu; tokiko elikagaien eraldaketarako gune publikoak garatu... Aldi berean, sektoreko ekoizleen salgaiak jaso eta merkaturatzea erraztu behar da: hiri-merkatuetan (Bretxa, San Martín) lehenetsuzko kokagunea eta baldintza duinak ziurtatu; azoka berriak antolatzeke bitartekoak eta laguntzak indartu; jantoki publikoak (eskolak, adinekoen egoitzak...) edo lizitazio publikoak egotzitakoak tokiko ekoizleen salgaiekin hornitu; tokiko dendetan baserriaren elikagaien irisgarritasuna bermatzeko bitartekoak sortu; kontsumo taldeen jarduna errazteko eta sustatzeko laguntzak eskaini; etxez-etxeko zerbitzuak sustatzeko ekimenak berrikusi eta indartu...

Norabide berri bati ekin beharrean gaude, eta norabide horrek balio zehatzen defentsa izan behar du oinarria:

- Hurbiltasuna, publikoa eta ondasun komuna.
- Kontsumo lokala, ekoizpen lokala eta banaketa lokala.
- Kalitatezkoa eta iraunkorra izango den enplegua.

Horregatik guztiagatik, EH Bildu udal taldeak honako ebazpen proposamen hau egiten du:

EBAZPEN PROPOSAMENA

1.- Donostiako Udaltzaren Udal Gobernuari eskatzen dio hiri-ekonomia birbideratzea helburutzat hartu eta susta dezala pertsonen bizitza erdigunean jarriko duen eredu bat. Eta horretarako, hiri-ekonomia eraldatu duen berriazko Plan Estrategiko bat abian

ayudas y medios para reforzar el servicio de reemplazo en los caseríos; tomar medidas para recuperar la actividad del sector pesquero; desarrollar espacios públicos de transformación de productos alimentarios locales... Al mismo tiempo, se debe facilitar la recogida y comercialización de las mercancías de los productores del sector: asegurar una posición preferente y unas condiciones dignas en los mercados urbanos (Bretxa, San Martín); reforzar los recursos y las ayudas para la organización de nuevas ferias; comedores públicos (centros escolares, residencias de personas mayores...) o el suministro de productos locales a las adjudicatarias de licitaciones públicas; crear medios para garantizar la accesibilidad de los productos alimentarios de los agricultores y agricultoras en los comercios locales; ofrecer ayudas para facilitar y fomentar la actividad de los grupos de consumo; revisar y reforzar las iniciativas de promoción de los servicios a domicilio...

Es imprescindible tomar una nueva dirección basada en la defensa de unos valores concretos:

- La cercanía, lo público y el bien común.
- El consumo, la producción y la distribución local.
- El empleo de calidad y sostenible.

Por todo ello, el grupo municipal EH Bildu presenta la siguiente

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que se plantee como objetivo la reorientación de la economía de la ciudad y promueva un modelo que ponga la vida de las personas en el centro, implementando, a tal fin, un Plan Estratégico

jar dezala, zeina jarduera ekonomikoak birkokatu eta Donostiak merkatu globalen gorabeheren aurrean duen zaugarritasuna gutxitzeko baliatuko duen.

2.- Donostiako Udaltzarak Udal Gobernuari eskatzen dio Plan Estrategiko horren egitekoa ekonomia birtokiratzea, lurraldearen eta herritarren beharrek lotzea, eta orekak berreskuratzea izan dadila, betiere eredu iraunkor baten baitan.

3.- Donostiako Udaltzarak Udal Gobernuari eskatzen dio Plan Estrategiko hori hiriko elkarte eta gizarte eragile askotarikoekin adostu dezala.

Donostian, 2020ko urriaren 27an

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldeko bozeramailea”.

específico que transforme la economía municipal, reubicando las actividades económicas y minimizando la vulnerabilidad que presenta nuestra ciudad ante las fluctuaciones de los mercados globales.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que el cometido de este Plan Estratégico sea, dentro de un modelo de desarrollo sostenible, reposicionar la economía, vincularla con las necesidades del territorio y de la ciudadanía y recuperar los equilibrios.

3.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que consensue este Plan Estratégico con las diferentes asociaciones y agentes sociales de la ciudad.

En San Sebastián, a 27 de octubre de 2020

Reyes Carrere Zabala,
portavoz del Grupo Municipal EH Bildu”.

7. PROPOSAMENAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA PROPUESTA N.º 7:

BOZKETAREN EMAITZA:

BAZTERTUA.

GEHIENGOA.

ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

AURKAKO BOTOAK: 13 – (9) EAJ/PNV, (4) PSE-EE.

ABSTENTZIOAK: 0

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

RECHAZADA.

MAYORÍA.

VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.

VOTOS EN CONTRA: 13 – (9) EAJ/PNV, (4) PSE-EE.

ABSTENCIONES: 0

8. EH BILDU taldeak etxebizitzaren arazoari buruz aurkeztutako ebazpen-proposamena.

8. Propuesta de resolución presentada por el Grupo EH BILDU sobre la problemática de la vivienda.

“UDALBATZARI

Reyes Carrere Zabala EH BILDU udal taldearen bozeramaileak, Udaltzaren Araudi Organikoaren 55. artikulua oinarri, etxebizitzaren arazoari buruzko ebazpen proposamen hau aurkezten du, politika orokorrari buruzko urteko osoko bilkuran eztabaidatu eta onesteko.

JUSTIFIKAZIOA:

Hiriaren egoerari buruz ari garela, neurriak proposatu beharra dugu, hiriari eragiten dion arazo larri bat konpontzen saiatzeko; izan ere, arazo horrek, ezaguna izanagatik, ez dio erreal eta premiazko izateari uzten. Etxebizitzaren garestitzea arazo erreal bat baita, Donostia erreal batena. Hori hala izanda, denok saiatu behar dugu gai horri buruz hausnartzen, arlo horretan gogor lan egiten eta horri aurre egiteko moduari buruzko politika estrategikoak diseinatzen.

Argi dago horretarako ezinbestekoa dela baliozko informazio tresnak izatea, Donostian etxebizitzaren arloan gertatzen diren aldaketak objektiboki neurtzeko. Era berean, ezinbestekoa da hartzen diren neurriek etxebizitzaren merkatuan zer ondorio dituzten egiaztatu ahal izatea, hau da, hartutako erabakiak objektiboki ebaluatu ahal izatea. Bi alderdi horiek aintzat hartuta, halabeharrez ezarri beharra dugu Etxebizitzaren Toki Behatokia. Udalaren osoko bilkuran lortu zen behatokia sortzeari buruzko akordio bat, baina ez da gauzatu.

Argudia liteke etxebizitzarena arazo endemiko bat dela eta tokiko eskumenetatik

“AL PLENO DEL AYUNTAMIENTO

Reyes Carrere Zabala, portavoz del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 55 del Reglamento Orgánico de Pleno, presenta la siguiente propuesta de resolución sobre la problemática de la vivienda para su debate y aprobación en el Pleno anual sobre política general.

JUSTIFICACIÓN:

Hablando sobre el estado de la ciudad no podemos dejar de proponer medidas para intentar paliar uno de los graves problemas que afecta a la misma y que, no por conocido, deja de ser menos real y apremiante. En efecto, la carestía de la vivienda es un problema real, de una Donostia real. La mera constatación de dicha afirmación nos interpela a todos a intentar reflexionar sobre tal cuestión, a trabajar intensamente en este campo y a diseñar políticas estratégicas sobre la forma con el que hacerle frente.

Resulta evidente que para ello resulta insoslayable que nos dotemos de instrumentos de información válidos que nos permitan medir objetivamente las variaciones que, en materia de vivienda, se produzcan en Donostia. Del mismo modo, resulta igualmente imprescindible que podamos comprobar los efectos sobre el mercado de la vivienda de las distintas medidas que se vayan tomando, en suma, que podamos evaluar de manera objetivable las decisiones adoptadas. Ambos aspectos nos llevan irremediabilmente a la necesidad de tener que implementar el Observatorio Local de la Vivienda. Medida sobre cuya creación se produjo un acuerdo en el marco del pleno del Ayuntamiento, sin que, dicho hecho, haya supuesto la efectiva implementación del mismo.

Pudiera pretender razonarse que el de la vivienda es un problema endémico, que escapa

kanpo dagoela. Hala ere, argudio horiek ukatu gabe ere, geure buruari galde diezaiokegu ba ote duen zentzurik hiriaren egoerari buruzko eztabaida bat egiteak, herritarren kezkarik larrietako bat den hori alde batera utzita. Bizkar emango al diegu donostiarrei arrazoibide horiekin? Bistan da erantzun hori ez dela ez herritarrek eskatzen digutena, ez alokairuko babes ofizialeko etxebizitzaren 9398 eskatzaileei eman behar geniekeena, ez putre funts batek kudeatutako etxebizitzetan bizi diren Donostiako 857 familiei, ez eta bizitegi etxebizitza ordaindu ezin eta etxetik botatzeko demanda jarria dieten familiei ere. Egiaz egin nahi badiegu aurre Donostiaren erronkei, ezin dugu hiri erronkei buruz jardun, etxebizitzaren edo haren garestitasunaren arazoari bere osotasunean heldu gabe.

Egia da zeharkako gai bat dela, hainbat administrazioen eskumenei eragiten diena, baina horrek ezin du legitimatu, bistakoa denez, toki administrazioak bere eskumenei itzuri egitea; areago, beharrezkoa izan daiteke neurrien bultzatzaile edo sustatzaile gisa jardutea etxebizitza eskuratzeko arazoari eta etxebizitzaren garestitzeari aurre egiteko. Donostiak arazo ukaezin bat du etxebizitzarekin, eta Udala, herritarrengandik hurbilen dagoen erakundea den aldetik, ezin da alde batera geratu, eta ez du geratu behar.

Ezinbestekoa da azterlan eguneratu bat egitea eta hor sartzea Etxebizitzari buruzko 2015eko ekainaren 18ko 3/2015 Legeak dakarren etxebizitza hutsaren definizioa betetzen duten etxebizitza guztiak. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak denbora asko behar izan du Etxebizitza Hutsen Erregistroa sortzeko, eta horri ez diogu gehitu behar hor jasotako

a las competencias locales. Sin embargo, sin negar la veracidad de las citadas argumentaciones, cabría preguntarse si tiene sentido que hagamos un debate sobre el estado de la ciudad obviando una de las preocupaciones más acuciantes para su ciudadanía. ¿Daremos la espalda a los y las donostiarres con los razonamientos anteriores? Resulta evidente que dicha respuesta no sería ni la que nos demanda la ciudadanía, ni la que debiéramos proporcionar a las 9.398 solicitantes de Vivienda de Protección Oficial en régimen de alquiler, ni a las 857 familias donostiarres cuyas viviendas están gestionados por un fondo buitren, ni a todas aquellas familias que sufren de demandas de desahucio por no poder afrontar los pagos de la vivienda residencial. Si de verdad queremos afrontar los retos de Donostia resulta innegable que no se puede hablar de retos de ciudad sin abordar, en toda su extensión, el problema de la vivienda o de su carestía.

Cierto es que se trata de un tema transversal, con afección a competencias de distintas administraciones; sin que, la citada afirmación pueda legitimar, como resulta obvio, que la administración local pueda rehuir las propias o incluso la necesidad de tener que actuar como promotor o impulsor de medidas para afrontar el problema del acceso de la vivienda y de la carestía de la misma. Donostia sufre un irrefutable problema con la vivienda de la que su Ayuntamiento, como institución más cercana a la ciudadanía, pueda, ni deba, quedar al margen.

Se hace imprescindible elaborar un estudio actualizado de todas aquellas viviendas que cumplan con la definición de vivienda vacía que contiene la Ley 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda. Ya que, a la demora en la creación del Registro de Vivienda Vacía por parte del Gobierno Vasco, no debemos añadirle la falta del trabajo de campo que puede realizar el

neurriren bat azkarrago ezartzeko Donostiako Udalak berak egin dezakeen landa lana ez egitea.

Hain zuzen, hutsik dauden etxebizitzak mugitzeak izan behar luke jorratu beharreko lan ildoetako bat. Alde horretatik, beharrezkoa da gogoraraztea etxebizitza hutsen erregistro hori sortzeak aukera emango duela etxebizitza horiek nahitaez alokatu beharra ezartzeko.

Datu zaparradarik eman nahi izan gabe, bai esan nahi nuke, Idealista atariaren arabera, Donostian salgai dauden etxebizitzaren batez besteko prezioa % 11,25 igo dela agintaldi honetan; hain zuzen ere, 4372 €/m²-tik 4866 €/m²-ra 2019ko ekainetik gaur arte (eta 3694 €/m²-koa izan da 2016ko ekainean).

Alokairuaren egoera ere ez da hobetu; izan ere, 80 m²-ko etxebizitza baten errenta 1168 € da batez beste. Zenbateko hori oso handia da etxebizitza behar duten familia edo bizikidetzaren unitate askorentzat, eta horrek, de facto, eragotzi egiten die etxebizitza horiek eskuratzea, eta, kasu askotan, Donostiatik kanpo bilatu behar izaten dute bizilekua.

Lan egin behar dugu alokairuaren merkatuan erreferentziazko prezioak jartzeko, zonaka; parke publikoaren txandaketa sustatzeko, bizikidetzaren unitateen beharren arabera; beste figura mota batzuk sortzea sustatzeko...

